

NOLA ERABILI *Zer da perpausa?*

Esku artean daukazun bideoan bi atal nagusi bereiz daitezke.

-Zer da perpausa? 04:36

- Sarrerakoa eta perpausa kontzeptuaren azalpena.
- Subjektua, objektua, predikatu-osagarria.
- Perpaus lokabeak eta mendeko perpausak.
- Adierazpen-, galde-, aginte-, harridura-perpausak.
- Perpaus bakuna eta perpaus elkartua. Juntadura eta menderakuntza.

ATAL DRAMATIKO LUZEA: *Handiustea.*

PROPOSAMENA

Bideo-gelara jo aurretik, gida honetako lehen bi atalei dagokien orrialdeak ikasleei banatu eta bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak landu. Horrela, ikasleek bideoan ikusiko dutena errazago jarraitu ahal izango dute.

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

- Lau ikasleko taldetxoak egin.**
- Gidoia irakurri** letra lodiz azpimarratutakoari arreta berezia jarritz.
- Gidoia berridatzi** beste modu batez.

Esaterako, baiezko perpausak ezezko bihurtuz eta ezezkoak baiezko:

*(Gaur eguraldi ona dugu. Eguzkiak ederto berotzen du.
Gaur eguraldi ona ez dugu. Eguzkiak ederto ez du berotzen.)*

perpaus bakoitzari kontrako esanahiz bilatuz.

*(Gaur eguraldi ona dugu. Eguzkiak ederto berotzen du.
Gaur eguraldi zatarra dugu. Hotz galanta egiten du.)*

edo perpausaren esanahia exageratuz:

*(Gaur eguraldi ona dugu. Eguzkiak ederto berotzen du.
Gaur eguraldi itzela dugu. Eguzkiak kiskali egiten du.)*

-Antzezipena prestatu.

Pertsonaiak: esataria, auto-gidaria, bulegaria eta *dekoratzailea*.

Dekoratu: testuan aipatzen direnak orri batean margota. Esaterako, Gaur eguraldi ona dugu. Eguzkiak ederto berotzen du. Dekoratzeko, eguzki handi bat.

Gero, antzezipenean, dekoratzaileak margoak erakutsiko ditu esatariak perpausak irakurri ahala.

-Antzeztu.

Hori guztia egin eta gero, bideoaren lehen zatia ikusi eta egindakoarekin alderatu.

-Galdegaia 16:15

-Aditza perifrastikoa denean.

-Aditza trinkoa denean.

-Aditza bera galdegai denean.

-Galdegaia ezezko perpausetan.

-ATAL DRAMATIKO LUZEA: Aitormena

PROPOSAMENA

Atal honen lehen zatia lantzeko, aurreko atala lantzeko egin duguna egingo dugu.

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

-Gidoia irakurri.

-Gutuna idatzi. Gidoiaren hariari jarraikiz, ikasleei adiskide min bati idatziko lioketen gutun bat idazteko eskatu.

-Gutuna gelakideen aurrean irakurri.

Hori guztia eginda, bideoaren bigarren atala ikusiko dugu.

EUSKAL PERPAUSEN DANTZA.

1. kapitulua Zer da perpausa?

Sarrerakoa: 02:26

Hizkuntza bateko hotsak adierazteko erabiltzen dugun zeinuetako bakoitzari letra deitzen diogu.

a b c d e f g h i j k l m n ñ o p q r s t u v w x y z
A B C D E F G H I J K L M N Ñ O P Q R S T U V W X Y Z

Hizkuntza batean berezko esanahia duen hots edo hots multzo txikienetako bakoitzari hitza deitzen diogu.

Miren arrano kutxa Karlos mahai neska

Esanahi oso bat duen hitz multzoari ^sesaldia deitzen diogu.

Euskara ikasi nahi dut.

Beraz, letren bitartez hitzak osatzen ditugu eta hitzak direla medio, esaldiak. Gauzak horrela ikusita, hizkuntza puzzle bat dela esan dezakegu. Eta hizkuntza gramatikaren alorrera eramaten badugu, esaldiak perpaus bilakatuko zaizkigu.

Zer da perpausa?

04:34

Perpausa kontzeptu teorikoa da, hizkuntzalariak eta gramatikariak erabiltzen duten kontzeptu teorikoa. Hizketaren emaitza esaldia da eta hortik abstrakzioa eginez atera dute gramatikariak perpaus kontzeptua. Hitz egiten dugunean **esaldiak** erabiltzen ditugu; baina, gramatikaz ari garenean, **perpauzez** aritu behar dugu.

Perpausaren egitura orokorrean **aditza** egoten da, edo aditz-multzoa; eta, perpausa osatzen duten gainerako elementuak osagarriak dira. Osagarri nagusiak hauexek dira: **subjektua**, **objektua**, **predikatu-osagarria** eta **adberbioa**.

Subjektua. Boz aktiboan, subjektuak azaltzen digu aditzak adierazten duen ekintzaren egilea nor den.³

Gizonak betaurreko beltzak jantzi ditu.

NORK jantzi ditu? Gizonak. Beraz, gizona da ekintzaren egilea eta perpausaren subjektua.

Boz pasiboan, subjektuak jasan egiten du aditzak adierazten duen ekintza.

Gizona garaia eta argala da.

NOR da argala eta garaia? Gizona. Beraz, gizonak jasaten duenez ekintza, bera da perpausaren subjektua.

Objektua. Objektua aditz sintagmaren osagarria da. Nor edo zer galderei erantzuten dieten objektuak, **objektu zuzenak** dira.

Mirenek gizonari **pakete bat** eman dio.

ZER eman dio? Pakete bat. Beraz, *pakete bat* objektu zuzena da.

Nori edo zeri galderei erantzuten dieten objektuak, berriz, **zeharkako objektuak** dira.

Mirenek gizonari **pakete bat** eman dio.

NORI eman dio? Gizonari. Beraz, *gizonari* zeharkako objektua da.

Predikatu-osagarria. Subjektuari aditz kopulatibo baten bitartez lotzen zaion adjektiboa da predikatu osagarria.

Autoa **urdina** da.

Da aditz kopulatiboa da eta *urdina* adjektiboa.
Adjektibo horrek subjektuaren tasun bat adierazten digu
eta **NOLAKOA** galderari erantzuten dio.

Adberbioak aditzak adierazitakoari buruzko informazio osagarria ematen digu.

Gaur eguraldi ona dugu.

Gaur adberbioa da eta **NOIZ** galderari erantzuten dio.

Perpausak sailkatzeko irizpide ugari dago, baina sailkapenik oinarritzkoenak bi perpaus-mota nagusi bereizten ditu:

Perpaus lokabeak eta mendeko perpausak.

Perpaus lokabeak. Perpaus lokabeak beste baten mendean ez daudenak dira. Askeak dira.

Mundu guztia etxean dago.

Horra hor perpaus lokabe bakarra eta askea.

Bat-batean, ate hotsa entzuten da eta gizonak buelta ematen du.

Horra hor bi perpaus lokabe, biak askeak.

Mendeko perpausak. Mendeko perpausak beste perpaus baten mende daudenak dira; ez dira, beraz, askeak.

Etorri den gizonak Mireni begiratu dio.

Oraingoan bi perpaus ditugu.

Lehenengoa, *gizonak Mireni begiratzen dio*, lokabea da; eta bigarrena, *Etorri den gizona*, lehenengoaren mende dago.

Esanahiaren arabera, lau taldetan banatzen dira perpausak:

Adierazpen-perpausak. Adierazpen-perpausak, zerbait adierazteko baino ez diren perpausak dira.

Ez dakit zer egin.

Galde-perpausak. Galde-perpausak, bere baitan galdera dutenak dira.

Zer nahi duzu?

Aginte-perpausak. Aginte-perpausak, norbaiti zerbait agintzeko edo eskatzeko erabiltzen direnak dira.

Erabaki ezazu, azkar!

Harridura-perpausak. Harridura-perpausak, harridura, miresmena edo ustekabea adierazten dutenak dira.

Zerri bat zara!

Azkenik, bi perpaus-mota handi bereiz daitezke:
Perpaus bakuna eta perpaus elkartua.

Perpaus bakuna

Perpaus bakuna, bere osagaien artean beste perpausik ez duena da.

Nirekin zoriontsu izango zara.

Perpaus elkartua

Perpaus elkartua, bere osagaien artean beste perpausa bat duena da.

Miren badoala ikusten duenean, gizonari irribarrea desagertzen zaio.

Miren badoala ikusten du eta gizonari irribarrea desagertzen zaio;
bi esaldiak elkarturik agertzen dira.

Aginduak

Subjektua + aditza + osagarriak

Lorea erabaki ezazu azkar!

Ander ez zaitetz mugitu!

(Idatzi beste lau)

.....

.....

.....

.....

Galderak

Galdetzailea + aditza + osagarriak

Zer nahi duzu bazkaltzeko?

Galdegaia + aditza + osagarriak

Lorearekin joango zara mendira?

(Idatzi bana perpaus)

.....

.....

Azkenik, bi perpaus-mota handi bereiz daitezke:
Perpaus bakuna eta perpaus elkartua.

Perpaus bakuna

Perpaus bakuna, bere osagaien artean beste perpausik ez duena da.

Nirekin zoriontsu izango zara.

Perpaus elkartua

Perpaus elkartua, bere osagaien artean beste perpausa bat duena da.

Miren badoala ikusten duenean, gizonari irribarrea desagertzen zaio.

Miren badoala ikusten du eta gizonari irribarrea desagertzen zaio;
bi esaldiak elkaturik agertzen dira.

Aginduak

Subjektua + aditza + osagarriak

Lorea erabaki ezazu azkar!

Ander ez zaituz mugitu!

(Idatzi beste lau)

.....

.....

.....

.....

Galderak

Galdetzailea + aditza + osagarriak

Zer nahi duzu bazkaltzeko?

Galdegaiak + aditza + osagarriak

Lorearekin joango zara mendira?

(Idatzi bana perpaus)

.....

.....

HANDIUSTEA

00:00 – 00:00

Gaur eguraldi ona dugu. Eguzkiak ederki berotzen du. Herriko kaleetan inor ez dabil. Arratsaldeko bostak dira. Mundu guztia etxean dago. Errepidean auto bat agertzen da. Autoa urdina da. Herrirantz dator.

Autoak herriko plazan aparkatu du. Gizon bat atera da autotik. Gizona garaia eta argala da. Gizonak betaurreko beltzak jantzi ditu eta alde batera eta bestera begiratu du.

Autoz etorri den gizonak Mireni begiratu dio. Mirenek autoz etorri den gizonari begiratu dio. Gizona Mirenengana doa eta Miren gizonarengana.

Miren.- Zer nahi duzu?

Gizona.- Zure bila etorri naiz.

Miren.- Zer dela eta?

Gizona.- Nirea nahi zaitudalako.

Mirenek gizonari pakete bat eman dio.

Miren.- Zerri bat zara! Zoza hemendik!

Ez zaitut ikusi ere egin nahi!

Gizona.- Nirekin zoriontsu izango zara.

Gizona.- Nahi duzun guztia izango duzu.

Miren.- Erosi egin nahi al nauzu?

Diruz dena eros daitekeela uste al duzu?

Gizona.- Bai, hori uste dut.

Miren.- Aski da. Joan zaitez antzarrak ferratzera.

Ni ez noa zurekin.

Gizonak irribarre egiten du.

Gizona.- Damutuko zara. Damutuko zara!

Aurkitu ondoko mendeko perpausetako perpaus bakunak.

Mirenek autoz etorri den gizonari begiratu dio.

Eguzkiak berotzen duenean hondartzara joaten gara.

Herriko kaleetan inor ez dabil arratsaldeko bostak direlako.

Gizonak betaurrekoak jantzi ditu beste aldera begiratzeko.

Aurkitu ondoko perpausetako subjektua eta objektua.

Mirenek auto berria erosi du.

Jonek hiru gol sartu ditu gaur.

S.....

..S.....

..O.....

..O.....

Ogia egin dut Nerearentzat.

Donostian jaio zinen, beraz.

S.....

..S.....

..O.....

..O.....

Salda bero-beroa dago.

Gazteok arazo asko daukagu.

S.....

..S.....

..O.....

..O.....

Zuretzat ekarri ditut loreak.

Zuretzat ekarri ditut loreak esaldian zuretzat azpimarratzen da.
Beraz, **NORENTZAT?** galdera dagokio

Zuretzat loreak ekarri ditut.

Zuretzat loreak ekarri ditut esaldian, berriz, loreak azpimarratzen da.
Beraz, **ZER?** galdera dagokio.

Gaur goizean **zure lagun batek** deitu du etxera.

Gaur goizean zure lagun batek deitu du etxera esaldiari
NORK DEITU DU? galdera dagokio.

Zure lagun batek **gaur goizean** deitu du etxera.

Zure lagun batek gaur goizean deitu du etxera esaldiari
NOIZ DEITU DU? galdera dagokio.

Gaur goizean zure lagun batek **etxera** deitu du.

Gaur goizean zure lagun batek etxera deitu du, esaldiari
NORA DEITU DU? Galdera dagokio.

Galdegaia aditz perifrastikoa denean, aditz partizipioaren eta laguntzailearen artean EGIN aditza jartzen da. Aspektoa EGIN aditzari eransten zaio.

Erosketak ere egin **egingo** ditut

Ez bazatoz, hil **egingo** naiz.

Galdegaia aditz trinkoa denean, bere ondo-ondoan aditz trinkoaren partizipioa ipini ohi da.

Hodei zuriak **joan** doaz.

Etxean **egon** nago.

Denak poztasuna **ekarri** dakar.

Galdegaia aditza bera denean edota haren baieztapena indartu nahi dugunean, aditz trinkoari *ba-* partikula eransten zaio.

Udaberria **b**adoa eta uda **b**adator.

Aditza konposatua bada, baieztapena bi eratara egiten da: aditza esaldiaren aurrean jarritz,

Esan diot etxean ez zaudela.

Eta baita aditza esan aurretik etena eginez,

Etxean ez zaudela, **esan diot**.

Ezezko perpausetan galdegaia, baiezkoetan bezala, aditzaren ezker aldean jarri ohi da, aditz laguntzailea aurrean duela.

Ez dut itxaropena galdu

Ez diot **etxetik joan zarela** esan

Ezezko perpausetan galdegaia aditz perifrastikoa bera denean, honela egiten da.

Ezin **dizut** hitz egin.

Ez zaitut ikusten, ez **zaude** han.

Ezezko perpausetan aditz trinkoa bera galdegai denean, beste era honetan egiten da.

Gure artekoa ez **doa**.

Paretako ordularia ez **dabil**.

AITORMENA

00:00 – 00:00

Zuretzat ekarri ditut loreak. Har itzazu arren. Behar zaitut. Zu gabe ez naiz ezer. Arren eskatzen dizut nirekin etortzeko.

Egongelan nagoenean, **albora** begiraten dut eta **ez zaitut** ikusten, **ez zaude** han. Telefonoari begiraten diot eta **zure telefono zenbakia** datorkit burura, baina, korapilo bat egiten zait eztarrian eta **ezin dizut** hitz egin.

Egunak joan, egunak etorri, gero eta tristeago nago. Bakardadeak ez dakar gauza onik. Etxea handiegia da niretzat. **Etxean egon nago, besterik ez.** Zatoz maite. Ez bazatoz **hil egingo** naiz.

Gaur goizean **zure lagun batek** deitu du bulegora. Ez diot bulegotik joan zarela esan. Etxean ez **zaudela** esan diot, geroago etorriko zarela. Ez dut itxaropena galdu.

Paretako ordularia ez **dabil**. Gelditu **egin** da. **Herenegungo bostak direla** esaten du. Ene bihotza ere ez **dabil**.

Odola falta zait. **Airea** falta zait. **Erotu** egingo naiz. Gure artekoa ez **doa**. Badakit

Udaberria, ordea, **badoa** eta uda **badator**. Parkea oso dotore dago. Zuhaitzak hostoz jantzita daude. Loreek kolore ugari dute. Dena dago alai, ni izan ezik. Denak poza **ekarri** dakar.

Hodei zuriak **joan** doaz piliki-poliki. Gaur **eguzkiak** egun berri bat argitu du. Ni, ordea, itzalpean bizi naiz. Zure argia falta zait.

Zatoz nirekin maite. Zin dagit bazkaria nik prestatuko dudala. Bazkaldu ondoren platerak jasoko ditut. Mahaia garbituko dut.

Asteburuetan ez naiz **futbolera** joango, zurekin **kiroldegira** baizik. Nahi duzuna egingo dut. Zure zerbitzaria izango naiz. Eta zin dagit pixaren azken tanta ere komuneko zuloan kokatuko dudala.

Erosketak ere **egin egingo** ditut, ez izan zalantzarik. Eta zehatz-mehatz begiratuko ditut prezioak. Eta beharpenetan ilaran aurkituko nauzu, beti.

Ez al duzu sinesten? Ez al duzu konfidantzarik nigan?

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:
Euskal Gramatica Osoa,
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI, Josemari:
Gramática Gaitasuna Lantzen,
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:
Euskaltzaindiaren arauak,
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com